


# KOSTUAK

Gure proiektua aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen du, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar da, sarrerak gastuak baino handiagoak izateko eta gure etekina maximizatzeko, beraz ezinbestekoa da hauen estimazioa ahalik eta zuzenen egitea.

Lehenik eta behin, negozio martxan jartzeko beharrezko izango dugun **hasierako inbertsioa** zehaztu dugu, kostuak identifikatu eta aztertu ondoren. Ezinbestekoa izan da lokal handi bat bilatzea, horrenbestez, 6.000 € ordaindu behar izango dugu fiantza moduan nahi dugun lokala alokatzeko, Zamudioko parke teknologikoan kokatuta dagoen 800. eraikina (300m<sup>2</sup>), alegia.



Horretaz aparte, sukalde handi bat prestatuko dugu, goi mailako etxe tresna elektrikoak eta ekipamendua bereganatuz, horretarako 100.000 € **inbertitu** behar izango ditugu. Gure jatetxeak itxura modernoa eta erakargarria izan dadin, ez dugu dekorazioan kapitala gutxietsiko, aparientzia ezinbestekotzat hartzen baitugu bezeroak erakartzeko. Geratzen zaizkigun 160.000 €-ekin beste zenbait kostu batzuetara zuzenduko ditugu. Hala nola, jantokia prestatzen, lizentziak lortzen eta gure menuak eskaintzeko beharrezkoak diren lehengaiak erosten.



Behin negozioia martxan dugunean, hilabeteko ordaindu beharko ditugun kostuak zehaztu behar izan ditugu. Kostuak bi talde nagusietan sailkatu ditzakegu: kostu finkoak (KF) eta kostu aldakorrak (KA).

Alde batetik, hilabeteko **kostu finkoak** erreparatuko ditugu: Lehenengoa, lokalaren alokairua da. Zamudioko Parke Teknologikoan bilatu izan dugun lokalagatik hilabetero 3.000 € ordaindu behar izango ditugu. Horretaz aparte, gure langileen soldatak ordaindu behar izango ditugu. Hasteko, 25 langileez osatutako plantilla bat aurreikusi dugu. Langile bakoitzak bere eginkizunaren arabera soldata desberdina irabaziko du, hortaz, hiru soldata desberdin finkatuko ditugu: 1.200€, 1.789€ eta 2.600 €. Gure azken kostu finkoa Internet-tarifa izango da, Euskaltel konpainiarekin ados jarri gara guretzat oso onuragarria den tarifa bat kontratatzeko, hilabetero 100 €-koa. Bestetik, hainbat enpresa batzuekin aliantzak egitea erabaki dugu; hala nola, Xiaomirekin, patinete elektrikoak bereganatzeko (500 €),

Bestetik, hilabete bakoitzaren arabera aldatuko diren kostuak aurki ditzakegu, **kostu aldakorrak**, hain zuzen ere. Argia, ura eta gasa bereganatzeko hiru enpresa nazionalekin harremanatan jarri gara. Argia Endesa enpresarekin kontratatu dugu, kalkuluak egin ostean, lehenengo hilabeteko faktura 457€ izango omen da, hala ere, hilabeteko batetik bestera alda ditzakete. Ura **Bilbo-Bizkaiko Ur patzuergoak** hornituko digu, eta lehenengo hilabeteko kostuak 116€ inguru izango dira. Amaitzeko, gasa EDP enpresarekin kontratatzea erabaki dugu eta lehenengo hilabeteko kostuak 147€ inguru izango direla kalkulatu. Gure menuak aurrera ateratzeko elementurik garrantzitsuenetariakoak sukaldatzeko lehengaiak dira horregatik, produktu hoberenak bereganatzeko hilabetero 700 €ko kostu aldakorra aurreikusi dugu.

Horretaz aparte, gure enpresa iraragartzeko ezinbestekotzat hartu dugu **Gotzon Mantulizekin** adostutako publizitate-kanpaina. Kostu hau aldakorra izango da, zenbat eta jende gehiago erabili beraren deskontu kodea, gero eta gehiago ordaindu beharko diogulako.

KF	€	KA	€
Alokairua	3.000 €	Argia (Endesa)	457 €
Soldatak	80.000 €	Ura (Aljarafesa)	116 €
Internet-tarifa (Euskaltel)	200 €	Gasa (EDP)	147 €
"Xiaomi" aliantza	500 €	Gotxonen kontratazioa	400 €
Maileguen itzulketa eta interesa	1500 €	Lehengaiak	700 €